







Energiaren kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin uztailean kontsumitutako elektrizitatea %4,3 jaitsi da aurreko urtekoarekin alderatuz gero, eta urteko metatuari dagokionez %1,9 murriztu da. Bai eraikinen sektoreak, baita industriak ere, behera egin dute (-%3,7 eta -%3 besteko beste).

Etxebizitzaren sektorean, elektrizitate kontsumoak %4,3 egin du behera eta zerbitzuen kontsumoa %3,3 murriztu da.

Siderurgia sektorearen kontsumoak %1,8 egin du gora, eta hau kontuan hartu barik industriaren kontsumoa %6 murriztu da. Azken honen barruan, elikagai, edari eta tabakoaren, bai zementuarena eta baita ehungintzak ere behera egin dute (-%33,2, -%26,3 eta -%14). Ontzigtza eta eraikuntza eta obra publikoaren azpisektoreak aldiz, gora egin dute (+%23 eta +%7,8).

Gas naturala







Uztaileko gas naturalaren guztizko kontsumoak %44,6 egin du gora aurreko urteko uztailearekin alderatzen bada, eta urteko metatua %14 handiagoa izan da. Zentral termikoen kontsumoa aurreko urteko uztailekoa ia halako lau izan da eta gainerako sektoreek guztira %1,7 egin dute behera.

Erregaiak garraioan

2019ko ekainean, EAEn, garraioan erregaien kontsumoa %8,1 txikiagoa izan da 2018ko ekainarekin alderatuta. Urteko metatua, berriz, %0,7 handiagoa izan da.

Epe berean, gasolinaren kontsumoak %4ko igoera izan du eta A gasoilarenak aldiz, %9,4 egin du behera.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



Nazioarteko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

2019ko uztailean, munduko petrolioaren kontsumoak egunean 100 milioi kupel baino gehiago izatera iritsi da (101,5 Mbpd), aurreko urteko uztailekin alderatuz %0,7 gehiago.

Epe berean, Txinak %4,1 hazi zuen bere kontsumoa 14 Mbpd arte eta AEBek %1,7, 21Mbpd gaituz. Europar Batasunak aldiz, %1 jaitsi zuen bere kontsumoa, 15 Mbpd arte.







Munduan, azken 12 hilabetearen hileroko batez besteko kontsumoak 100 Mbpd ingurukoa izaten jarraitzen du.

Gas naturalaren kontsumoa munduan

OCDEko herrialdeetan, 2019ko maiatzean, 125,6 bcm (milaka milioi m³) inguru kontsumitu ziren. Kontsumo hau aurreko urteko maiatzekoarekin alderatuz %6,5 handiagoa izan zen. Aldiz, azken 12 hilabetearen hileroko batez bestekoa 147bcm-tan mantendu zen.

OCDEko zonalde geografikoen arabera, kontsumoen aldaketak gorabeheratsuak izan ziren, aurreko urteko maiatzarekin erkatuta; Amerikan %3,6 eta European %18,7 igotzen zen bitartean, Asia-Ozeanian %2,7 murriztu zen gas naturalaren kontsumoa. Urteko kontsumo metatuari dagokionez, Amerikan %1,6 handitu zen bitartean, European eta Asia-Ozeanian %1,9 eta %0,3 murriztu zen hurrenez hurren.

Iturriak: AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



Energiaren kontsumoa Espainian

Energia elektrikoa

Espainian, elektrizitatearen kontsumoak %2,2 egin zuen gora uztailan, 2018ko hilabete horretan izandakoarekin alderatuta. 2019. urteko uztailera arte metatutako kontsumoa %1,4 baxuagoa izan da aurreko urtekoarekin konparatuz.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2019ko uztailan berriztagarrien partaidetza %31 izan da, sorkuntza eolikoak %15a asetu duelarik. Gainerako sorkuntza, erregai fosilen (%46) eta nuklearraren (%23) bitartez asetu da.

Gas naturala






2019ko uztailan, Espainian, gas naturalaren guztizko kontsumoak %42,2 egin du gora, 2018koarekin konparatuta. Igoera hau, zentral termikoetan izandako igoera esanguratsuari dagokio (+%185) eta baita gainerako kontsumoen gorakadari ere (+%2,8).

Erregaiak garraioan

Espainian, errepideko garraioaren erregaien kontsumoak goranzko joera izan du 2014. urteaz geroztik, baina ekainean kontsumoak %2,4 egin zuen behera, aurreko urteko hilabetearekin alderatuz, baina urteko mentua egonkor mantendu da (+%0,5).

Erregai motaren arabera 2019ko ekainean, aurreko urteko hilabetearekin konparatuz, A gasolioak %3,7 egin du behera, gasolinak aldiz, %3,6 gora.

Iturriak: REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.



Energiaren prezioak

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 64\$ (57€) izan zen uztailean, apirilean hasitako beheranzko joerarekin amaituz.

Elektrizitatearen prezioa

Espanian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 51,5 €/MWh izan zen uztailean, aurreko urtearekin alderatuz %16,8 baxuagoa.

Gas naturalaren prezioa

Holandako TTF delakoa, erreferentziazko batez besteko prezioa europar merkatuan, 11,0 €/MWh izan zen uztailean; Espainian, MIBGASena 14 €/MWh-koa eta Alemaniako EGIX M+1aren uztaileko prezioa 13,9 €/MWh izan ziren.

Nazioarteko merkatuetan, uztailean, Henry Hub deritzona, 8,1 €/MWh-ra iritsi zen, eta prezioa Japonian 14,3 €/MWh-ra igo zen.







Erregaien prezioa

2018ko abenduan gasolioaren prezioa 1,14€/l izan zen eta gasolinarena 1,19 €/l; 2019ko ekainean, berriz, gasolioarena 1,24 €/l izan da eta gasolinarena 1,34 €/l, prezioen goranzko joera hautsiz.

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren europar baimenaren prezioak goraka jarraitzen du, uztailean 27,9 €/t-ko balioa lortu duelarik.

Iturriak: EIA, OMIE, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



Elektrizitatearen ekoizpena Europan

Espania

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs urte hezea).

2019ko maiatzean, energia berriztagarrien parte hartzea handitu da (%42,7), baita energia eolikoarena ere (%22,5). Gainontzeko sorkuntza, energia nuklearrak (%19) eta erregai fosilek (%38,3) osatzen dute. Azken honetan, iktatzaren adierazgarritasuna %2ra murriztu da.

Frantzia

2019ko sorkuntza elektrikoak Frantzian, aurreko urteko egitura mantentzen du; funtsean, energia nuklearrean oinarritzen da (%71), erregai fosilek %6a asetu dute eta berriztagarrien ekarpena %23a izan da maiatzean.

Alemania

Alemanian, aurreko urteko sorkuntza joerari jarraituz, berriztagarrien ekarpena handituz doa (%43), erregai fosilen bidezko sorkuntzaren kalterako (%47); nuklearren partaidetzak bere horretan jarraitzen du (%10).

Erregai fosiletan, azpimarratzekoa da iktatzaren partaidetza (%30) eta, maila apalagoan bada ere, gas naturalarena (%14) izan da maiatzean.

Iturriak: AIE-ren datuetan oinarrituta.